

# BERRIGARA

2. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, martxoak 18

**Bergara mundu zabalera**  
**herriaren promozio turistikoa martxan**



**ZU BAKARRIK  
ZARA NIRE AUTOA.**

OPEL CORSA  
NIRE AUTOA



OPEL

10<sup>o</sup>  
URTEURRENA

**TALLERES  
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/46

BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN:

Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIIONDO, OTALORA,  
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU  
ARRASATEN BERTAN  
URRUTIRAGO JOAN GABE!**



Zerkaosketa, 17 etxabea ARRASATE  
☎ 79 20 18



# HIRU

## ARROZTEGIA

• ATEAK • LEIHOAK • ZORUAK • PVC •

Antigua auzoa, z/g ANTZUOLA • Tfnoa: 76 63 59

## Z E R B E R R I D A ?

### JOAQUIN ROS

#### IAT-ITV Luybaseko arduraduna

- Zein erantzun izan du IATrako taillerak?

- Oraingoz behintzat ona. Dagoeneko 3.500 kiloz beherako 1.500 ibilgailu inguru pasa dira, egunean 70-80 bat eta ordutegia zabaltzeko asmotan gaude, daukagun demandari aurre egin ahal izateko. Horregatik, telefonoz deitzea (76 04 90) gomentatzen da, itxaroten ez egoteko. Prezioa 2.800 pta.ko da, Euskal Herrikan kanpoko beste tailer batzutan baino merkeagoa. 4 urtetik gorako ibilgailuek azterketa pasa beharra dutela ere gogoratu behar da.

- Eta pabilioi berria noizko?

- Oraingoa probisio-



nala da (*Saizabal Autoak*-en ondoan, San Lorentzon) eta berria parean egingo dugu, urrirako zabaldua egingo dela espero da. Orduan inguruko demandari aurre egin ahal izango diogu; orain karril bakar batekin ari gara eta berriak bi karril eta erreserbako beste bat izango du.

**"Egunero 70-80 bat ibilgailu jasotzen ditugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Frontoian berrizte lanak egingo dira

Begarako Frontoian berrizte lanak egingo dira Eusko Jaurlaritzaren Barne Saileko Joku eta Ikuskizunen Araudira egokitzeko. Frontoiak ez ditu zenbait segurtasun neurri (emerjentziatzko sarrerak etab.) ez zituelako betetzen. Orain badirudi Udala eta Frontoiko enpresa prest direla berrizte lanei ekiteko, Anselmo Inurrategik eginiko proiektuari jarraituz. Baliteke pelota denboraldia amaitu bezain laister lan horiek hastea. Obrak amaitutakoan, pelota partiduez gain, beste ikuskizun batzuk jaso ahal izango lituzke Frontoiak.

## ESAN DUTE

"Apaiz izatea edo ez izatea eztabaidatzea ez da guztia, hori aukera bat izango litzateke posible izatekotan. Emakume batek, bere emakume izatea, bere nortasun berezia eman beharko lioke apaizgoari"

**ARANTZA ODRIOZOLA**  
Mariaren Lagundia ordenako monja  
EUSKADI IRRATIA

"Barnetegietan, umeen aldetik, ondorio izugarri onak lortzen dira: ondo pasa, euskaraz asko hitzegin eta euskal mundua ezagutzeko aukera izaten dute. Esperientzia oso aberatsa da, baina zenbat ikasi duten neurtzea zaila da"

**IÑAKI ARTOLA**  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikaria  
LOIOLA IRRATIA

"Nekeza da lanpostu berriak sortzea. Helburua Gipuzkoako baserrietako 2.000 lanpostu ingururi eustea izango da"


**BALENTIN GABILONDO**  
EHNEko Gipuzkoako presidentea  
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Begarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



**SRA. DOUBTFIRE  
PAPA DE POR VIDA**

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30.



**AZUL**

Larunbata: 17.00, 19.30  
eta 22.30.



**LA FAMILIA ADDAMS  
LA TRADICION CONTINUA**

Igandea: 11.30

**Zinea**

▼▼ *Daniel Hillard*  
(**Robin Williams**)  
beren hiru semekin  
egoteko edozer gauza  
egiteko kapaz da.  
Bere emazteak (**Sally  
Field**) dibortzioa  
eskatu berri du eta  
Danielek lana bilatu  
beharko du. Bere  
emazte eta semeen  
etxean lana  
suertatuko zaio...  
etxeko lanak egiten.

▼▼ **Krzysztof  
Kieslowskik** (*La doble  
vida de Verónica*) bere  
trilojiaren bigarren zatia  
(*Blanco*) aurkeztu berri  
duenean, guri lehen  
heldu zaigu. Cannesen  
sarituta, alargun  
geratzen den emakume  
baten (**Juliette  
Binoche**) gorabeherak  
azaltzen zaizkigu.

▼▼ **Pertsonaia**  
beldurgarri eta  
barregarritz jositako  
filmea: *Morticia,  
Gómez, Cosa,  
Miércoles...* etab. luze  
bat. Lehen zatian  
bezala, **Barry  
Sonnenfeld**  
zuzendari eta  
**Anjelica Huston** eta  
**Raul Julia** dira aktore  
nagusiak.  
*Addamstarrekin* barre  
egiteko aukera.

**Deiak**

▼ **Argazkiak.** Josuren eta Mike  
Murgizuk ordenadorez landutako  
argazki zaharrak Nahikarin.

▼ **Luis I. Glezen** diapositibak  
Angiozarko Saloian 7etan. Gaur eta  
hilaren 25ean.

▼ **Odol ematea** asteazkenean  
7etan Seminarioko baxuetan.


▼ **Udal Bandaren** kontzertua  
larunbatean 12.30etan Novedades  
en: *Maritana* (Wallace), *Egiptiar  
dantzak* (Lugini), *I'm gettin' sentimental  
over you* (Bassman) eta  
*La rosa del azafrán* (Guerrero).

▼ **Ricardo Azkargortaren**  
"Distancias" margo erakusketa B  
boko Berta Belaza Galerian.

▼ **Juan Mari Olloraren** "Gara  
egungo egoera politikoa" hitzaldira  
gaur 8etan Batzokian.

**Ogia**

▼ **Igandea 20:** Mizpildi.



**GOARDIAKO  
FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 19:** Puy/Irizar.
- ▼ **Igandea 20:** Puy/Amezua.
- ▼ **Astelehena 21:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 22:** Estella/Morales.
- ▼ **Asteazkena 23:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Osteguna 24:** Camacho/Español.
- ▼ **Ostirala 25:** Puy/Irizar.

**ANTIA**

**ARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri,  
bildots, untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Teileria ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

# Oyhamburu

San Jose egunean 20.00etan Santa Marinan

SARRERA DOAN

## abesbatza



Jose Arrieta eta Xabier Olabarria, eskumatik hasita lehen biak, Oyhamburu abesbatzako kide.

**Miarritzeko Oyham-  
buru Abesbatzak** kon-  
zertua eskeiniko du bi-  
har larunbata arratsalde-  
ko Setan Santa Marinan.  
Bertan, besteak beste,  
Xabier Olabarria eta Jose  
Arrieta bergarrek abes-  
tuko dute. Philippe  
Oyhamburuk orain dela  
urtebete inguru Xabier  
Olabarria ezagutu zuen  
Pariserako bidaia bate-  
tan; ordutik harreman ho-  
ri sendotuz joan da eta  
horren ondorioz Arrieta  
(tenorea) eta Olabarria  
(baritonoa) bere taldeko  
kide bihurtu dira. Hain  
zuzen ere, sarritan Mia-  
rritzen izan dira entsaia-  
tzen eta pasa den urteko  
azaroan Oyhamburu  
abesbatzak Estatu Batue-  
tan zehar egindako jira-  
txoan izan ziren.

Bihar, Udalak eta Ari-  
tzeta Abesbatzak (bisita-  
ren truke Aritzetak maia-  
tzean Saran abestuko du)  
antolatuta, 1990an sortu-  
tako Oyhamburu abesba-  
tzari entzuteko aukera  
izango dugu. 65 abeslari  
dira taldean eta Parisen  
ere badu 50 abeslariz osa-  
tutako beste talde bat (as-  
tean behin Parisera joaten  
da Philippe Oyhamburu  
taldearekin entsaiatu eta

euskarazko klaseak emate-  
ra). Besteak beste, "*La  
revancha de Bakunin*",  
"*El irreductible fenóme-  
no vasco*" eta euskal abi-  
zeneri buruzko hiru liburu  
idatziak ditu eta 1954etik

1984ra bitartean Euskal  
Dantza eta Koroen "*Etor-  
ki*" ikuskizunarekin mun-  
duan zehar ibili zen. Gaur  
egun, Euskal Herriko  
kantuak jakitera emateaz  
gain, beste herrialde bat-  
zutakoak ere eskaintzen  
ditu Miarritzeko abesba-  
tzak, besteak beste, Ale-  
mania, Errusia, Georgia,  
Grezia edota Turkiakoak.

Biharko emankizuna  
bi ataletan banatuko da:  
*Euskaldun seme*, *Etorki-  
zuna*, *Snami Bog*, *Erri-*

*bera* (Arrieta eta Olaba-  
rria bikotea eta Rene Bar-  
raque bakarlari), *La bar-  
ca de oro*, *Goiko mendi-  
an*, *Suliko*, *Akerra* eta *Ai  
Mari Migel* (lehen atala);  
*Lorea*, *Gospodi* (bakarla-  
ri: Karmentu Losada),  
*Les saltimbanques*, *Beñat  
Mardo* (bakarlariak: Kati  
Driollet eta Rene Barra-  
que), *Bi eusko abesti*, *Vie  
Tcherni Zvon* (bakarlari-  
ak: Mazaury, Grenie eta  
Arrieta), *Agur izar hori*  
eta *Txomin*.

**Orain dela 4 urte inguru  
sortu zen abesbatzak  
hegoaldean kantatzen  
duen lehen aldia**

**EXUKLIN**  
**BEREZITASUNAK**  
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

**KOXKA**  
  
• Gozokiak  
• Fruitu lehorrak  
• Jaunartze eta  
jaietarako  
enkarguak  
Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

*Paper pintatuak - Pinturak*  
**A. ZANGITU**  
☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

**"Nire ideiak azaltzeagatik..."**

Ez da horrenbeste denbora pasatu herriko plazan, Bergarako Elkarte, Talde eta erakunde ezberdinek hainbat pintada burutu zituztela asfalto beltzaren gainean, adierazpen askatasuna aldarrikatzeko. Ez zen besterik eskatzen.

Udaran, pintadak egin zirenean, Gobernu ekipoa oso bizkor ibili zen ezabatze lanetan. ARG! askoz politagoak zirenean erakunde ezberdinek egin zituztenak, gainetik haiek tapatzeko Udaletxeak erabili zituen tono gris haiek baino.

Baina badakizue egindako pintadak tapatzeaz gain, gobernu ekipoko hainbat kide (Alkatea barne) plazara atera zirela, hau pintatzen zihardutenen izenak jasotzera, baita ertzantza bidali ere han zeudenak indarrez kanpora botatzeko. Guzti hau "beraien" Demokraziaren izenean, noski! eta garbi asko adierazpen askatasunaren aurka.

Ez zen ez hor amaitu kasua, Bitoriano Gallastegik eta bere ekipok duten boterea erakutsiz, horretaz akusatzen dituzten hainbat gazte juiziora sartu ditu, adierazpen askatasuna aldarrikatzen zebiltzala eta.

Gezurra dirudi, kargu hori, Alkatetza alegia, duen pertsona batek jokabide hori azaltzea herritarren aurrean. Onerako eta txarrerako kritikak onartzen ikasi behar luke, inoren ahoa tapatzen

ibiltzeke asfalto beltza zikintzearen aitzakia ipinita, gustokoak ez ziren mezuak ezabatu nahian.

Urte asko pasatu ditugu ixilik derri gorrez, eta ez dugu berriro frankismoaren garaira itzuli nahi. Are gutxiago Udaletxe batek herritarrik epaitegira eramaterik, honek pentsatzen duena azaltzen duelako. Horrekin mozten da eta pertsona askok bere pentsakera adierazteko duten baliabide bakarra.

Utzi horrelako eginkizunak bakean egiten eta kasu egin herriko gestioari, badago non egin eta zer egin nahikoa, arazo ez direnak arazo bihurtzeke.

**JOSE RAMON ETXEBERRIA**

**Kanpora zaitetz Elizatik!**

Martxoaren 3an jende talde bat bildu zen Kultur Etxean apostasiaren inguruan. Jaio ginenean ez ziguten okasiorik eman gure sinismen erlijiosoez aukera bat egiteko, denok izan ginen bataiatuak Eliza Katolikoaren barruan. Gaur egun eliza honek ez digula ezer onik ekartzen uste dugu. Zapalketa eta errepresioa izan da, gehienbat, erakutsi diguna batez ere esparru moralean: emakumearen sumisioa bultzatuz, sexu askatasuna ukatuz (ezkontzaz kanpoko harreman guztiak gaitzetsiz, gay eta lesbianen aurka arituz, antisorgailuak, abortoa, etab. arbuatuz).

Bestalde, jakina da Elizak historian zehar ejerzitoak bedeinkatu dituela. Duela gutxi Justizia Ministeritzarekin objetoreentzat Prestazio Sozialerako postuak eskeiniz tratu bat egin du. Hone hauen Dotrina Berriak dioena: "Sométame todos a las autoridades constituidas, pues no hay autoridad que no provenga de Dios...". Badirudi, beraz, intsumisoak pekatariak direla.

Arrazoi hauengatik, besteak beste, Eliza honetatik borratu egin nahi dugu. Helburu honekin bildu gara eta kanpaina bati emango diogu hasiera. Gurekin ados bazaude eta parte hartu nahi baduzu zatoz astelehenean, hilak 21, Kultur Etxera arratsaldeko 7etan.


**BERGARAKO APOSTASIA TALDEA**

**Zuzenketa**

Aurreko alean Jesus Mari Etxeberriaren gutunaren lehen parrafoa gaizki argitaratu zen akats batengatik. Parrafoak honela zioen: "Literatur zaletasunen artean idazle euskaldunak sartu zitzaizkidanean euskal izenak liburuetan ikusten nuen grafiaz idazten hasi nintzen. Alfabetatze prozesu hori zortzi urte dela hasi zen... eta oraindik ez da bukatu".

**Tiira biraka**

**JULIAN EZENARRO**



**Asteazkenean aurkeztu zen Kultur Etxean Bergarako Difusio Turistikorako plangintza.**

# Turismoari ateak zabaldu nahian

## Bergararen Zabalkunde Turistikorako Plangintza martxan

Bertan izan ziren, besteak beste, Koldo Pereira zinegotzia, Xabier Aranburu udal museologoa eta Lourdes Romano Oñatiko turismo teknikaria eta Deba Garaiko Mankomunitatean turismo arloan lan egiten ari dena.

Koldo Pereirak azaldu zuenez, *"arau subsidarioetan jasotzen denez, herri moderno biburtu nabi dugu Bergara, herri erakargarria eta komunikazioetako zentru gune. Horretarako ezinbestekoa da, 3. zerbitzua, turismoa alegia, bultzatzea, gaur egun duen indarra eta etorkizunean izango duena kontutan izanda. Horretarako lehen pausua eman dugu foileto hauekin eta bertan azaltzen diren grafikoak eta argazkiak egi-teagatik Migel Altuna institutua eta Pol-Pol Argazki Taldeari eskerrak*

*eman nabi dizkiot".*

Xabier Aranburu udal museologoa jakitera eman zuenez, *"turismoa bestelako irtenbideen bila ari da eta azken urteotan natura eta ondare artistikoaz gozatzeko egun gutxiko irteerek gero eta indar haundiago dute. Bergarak bainbat errekurtsio ditu turismo kulturalari dagokionez. Gure asmoa horixe litzateke; gure ondare artistikoa ezagutzera eman eta horretarako bi ideia nagusi zabaldu: Bergara bisitatzeak benetan merezi duela eta bisitariari zerbitzu eta atentzio minimo egokia ematea. Foileto hauek izan dira lehen pausua eta ondoren, gida-liburua, postal-*



Foiletoak lau hizkuntza ezberdinetan kaleratu dira, guztira 12.000 ale.

*bilduma, bisita-gidatuak edota turismo bulegoa etor daitezke".*

Foiletoak lau hizkuntzatan (euskara, erdara, ingelesa eta frantsesa) egin dira eta hizkuntza

bakoitzeko 3.000 ale kaleratu dira. Turismo bulegoetan, bidai agentzietan eta herriko hainbat tokitan banatuko dira, etortzen diren bisitariak eskura izan ditzaten. Bertan, herriko hainbat monumenturi buruzko testu eta argazkiez gain, herriko mapatxo bat eta hainbat telefono interesgarri (zerbitzuak, ostatuak, jatetxeak edota gozotegiak) aurki daitezke.

Era berean, Lourdes Romanok, Mankomunitateak argitaratutako Deba Garaiko turismo gida (10.000 ale) aurkeztu zuen. Bere hitzetan, *"ikus-ten da bailaran, turismo arloan, zerbait mugitzen ari dela. Orainarte, industria zela eta, nekeza zen turismoaz hitzegitea baina orain Mankomunitateak, Diputazioaren laguntzaz, Deba bailaran turismoa bultzatzeko plangintza bati ekin dio. Dena den, hutsuneak ere badira oraindik, alojamentuarena esate baterako. Gure proiektua 3 arlotan zentratu nabi genuke: ingurugiro mailan (industriak izan du hor eragina), azpiegiturak (hutsuneak betez) eta ekipamendu kulturala".*

Jaso daitekeen turista kopuruaren prebisorik egin ez den arren, honako hau gure eskualdean turismoa indartzeko eman den lehen urratsa besterik ez dela adierazi zuten prentsaurrean bildutakoek.



Ezerre, mesedez

Jose Mari Larrañaga Migel Altuna Institutuko zuzendaria, Xabier Aranburu, Koldo Pereira, Lourdes Romano eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kidea.

◆ **Kapirixoren salaketa**

Bergarako Kapirixoko Taldeak idatzi bat bidali digu hainbat tokitan azaldutako pintadei buruz. Bertan jasotzen denez, "gure esku dagoen ondarea oso murrizta da eta batzuetan ez dugu behar beste zaintzen baina horrek ez du esan nahi edozein tokitan edozer gauza egin daitekeenik. Arostegi etxean, bonen atariko atean eta horrelakoetan pintadak egiten baditugu, indarra kentzen diegu gure eskakizunei. Gutariko bakoitzak bere esku dagoena eginez, bere inguruan duen ondarea zaintzeko eta babesteko ahalegina egin behar du". Azkenik, Kapirixoko taldeak, "Arostegi Etxean, bonen atean, plazan eta horrelako tokietan agertu diren pintadak gutxiesten ditu eta aurrerantzean horrelakoak gerta ez daitezen herritarrei eskaera zabala egiten die".

◆ **Bergarako EAJ**

Bergarako EAJk dei egiten du hilaren 26an Eskoriatzako pelotalekuan ospatuko den Deba Garai eta Beheko alderdikideen egunean parte hartzeko. 12etan ekitaldi politikoa izango da Imaz, Egibar eta Arzalluzekin eta 14etan bazkaria (2.500 pta, izen-ematea Batzokian).



Bildutako material guztia larunbat goizean kargatuko da kamioietan.

**Bergarako laguntza Bosniara bidean**

*Bildutako materiala, 2,5 tona inguru, bihar kargatuko da*

Bergara Bosniaren Alde Plataformak amaitu du dagoeneko azken asteetan eskolako materiala, hijiene eta osasun materiala, medikamentuak eta galtzen ez diren janariak biltzeko kanpaina. Bergararren erantzuna ezin hobea izan da eta bi tona material inguru batu dira Plataformako kideen ustetan; "kantitaterik ematea oso zaila da, batez ere material hijieniko eta medikamentuen kasuan. Elikagariak dagokienez, 1.500 kg. inguru batu dira eta material eskolarrean, 800 bat kg. Baina oraindik ez dago kantitate zehatzik ematerik. Bes-

talde, erakusketa (14 koadro saldu dira), itxulapiko eta zabaldutako kontu korrontearekin 800.000 pta.tik gora batu dira".

Bihar larunbatean kargatuko da material guztia eta La Guipuzcoan egingo du doan SOS Balkanek Donostian dituen lokaletarainoko transportea. Handik Frankfurtoko (Alemania) amerikar base militarrean bidaliko da eta ondoren Bosniako hainbat tokitan parakidas bidez banatuko da.

Bergara Bosniaren Alde kanpaina honetan kolaboratu duten laguntza eskertu nahi du.

**AGOITZ**

**Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

**Amets**



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

**AMETS TAILERRAK**

Berezano auzoa OÑATI

20 urte zure  
zerbitzura,  
kalitatezko  
altzariak  
eskaintzen

**ederTU**

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

**Pepelu**

**Ileapaindegia**

Zurradero, 2 behea.

☎ 76 43 07





Argazkian Joxe Lazkanoren epaiketaren aurkako ekitaldietako bat.

## Urtebeteko kartzela zigorra Lazkanori

*Ostegunean Migel Albeniz intsumisoa epaituko dute*

Urtebeteko kartzela zigorra, kargu publikorik ezin bete izatea, kondena denboran boturik ez izatea eta epaiketa ordaintzeko zigorra ezarri diote Joxe Lazkano intsumiso bergararrari, soldadutza egiteari uko egiteagatik.

Sententzian jasotzen denez, "gaur egun soldadutza eta kontzientzia objeizioaren araudiaren aurrean gizarteak azalduko kontrako jarrera eta araudi bori aldatzeko eskakizuna nabaria da". Era berean, "delituaren gaiztotasun maila eta eragindako kaltea kontutan hartuz, sententzia

indarrean jarri bezain laister, ezarritako kartzela zigorra ez betetzeko Gobernuak indultoa ematea" eskatzen du epaileak.

Bestalde, datorren ostegunean, hilak 24, Migel Albeniz intsumiso bergararra epaituko dute Donostian. Joxeren kasuan bezala, fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du. Asteazkenean, 18.30etan, Migelen aldeko enkartelada izango da Plazan. Bihar larunbata, berriz, manifestazio bat izango da Donostian. Joan aurretik joan nahi dutenak Popis tabernan bilduko dira arratsaldeko 4retan.

### ◆ Txorimalo lehiaketa

JARDUNeko Gazte Taldeak Txorimalo lehiaketa antolatu du Erramu Zapaturako, hilak 26.. Bakarka edo taldeka parte hartu ahal izango da. Diseinua eta erabilitako materiala libreak izango dira eta txorimaloak ardatz edo haga bat eramango du, bestela oinarri sendo batetan finkaturik egongo da. Hiru talde bereiztuko dira: 14 urtetik beherakoena lehena, 15 urtetik 60ra bitartekoena bigarrena eta 60 urtetik gorakoena hirugarrena. Txorimaloak Erramu Zapatuko Ferixaren sailetan 11tatik ordubiak arte egongo dira ikusgai eta sari banaketa ordubatean izango da. Izenematea JARDUNeko bulegoetan egin beharko da martxgaren 23ko 6ak baino lehen.

### ◆ Hitzaldia

Arans-Guik antolatuta, Alberdi Olano doktoreak "Komunikazioaren eragina gorraren garapen psikologikoan" hitzaldia emango du asteazkenean 7etan Kultur Etxean.

### ◆ Aste Santuko irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak Aste Santuan Selva de Ozan 5 eguneko akanpada antolatu du. Izenematea Pol-Polen ostegunera arte.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

DENA  
**100**etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

## TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorenzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia




PEUGEOT-TALBOT



# JAKIN

AKADEMIA



**KUOTA BAT ORDAINDUZ, ORDENADORE BAT  
EGUNERO ZURE ESKU**

**INFORMATIKA IKASTAROAK**

- MS-DOS
- WORDPERFECT
- LOTUS
- D BASE
- KONTABILITATEA
- WINDOWS
- WORD
- EXCEL
- WINDOWSerako  
WORDPERFECTa

**MEKANOGRAFIA ORDENADOREZ**

SANTALAITZ, 4  
20570 BERGARA  
☎ 76 00 68

BULEGO ORDUAK:  
10.00.-13.00. BERGARAn  
16.00.-19.00. ELGOIBARren

ERROSARIO KALEA, 25 1  
20870 ELGOIBAR  
☎ 76 08 95

## MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

**Koldo Elizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00**

ELECTRICIDAD

**ELKAR**

ELEKTRAGINTZA

☎ 76 00 00

**Osasuna****Alerjiak**

**- Zer da alerjia, nola sortzen da?**

- Gure defentsa sisteman erreakzio immunolojikoak da antijenoren baten kontaktuan egotean. Kapazidade antijenikoa duten hainbat sustantziaren kontra gure defentsa sistemak gogor egiten du; antigenoek erreakzio alerjikoak dakarte: mukosen eta azalaren inflamazioa, gorritzea, hipersekrezioa eta bronkioen konstriktzioa adibidez.


**- Eta zeintzuk dira alerjiaren ohizko erreakzioak?**

- Rinitis alerjikoak (begietako hazkura, doministikua, sudurreko jario-txoa), asma (bronkioetako mukosaren edema, bronkioetako mukiaren hipersekrezioa eta bronkioen muskulaturaren konstriktzioa) eta urtikaria (azaleko arazoak). Beti ere erreakzioa alerjia probokatzen duen antijenoaren kantitatearen menpe dago.

**- Eta alerjiak ebitzerik badago?**

- Oso nekeza da baina badira jarraitu beharreko

gomendio batzuk: eguzkiaren ultrabioleta izpien eraginez sortzen diren urtikarien efektuak gutxitzeko metodoak ere badaude: eguzkitara lentu eta progresiboki jartzea eta eguzki protektoreak (kremak) erabiltzea. Hautsaren eta akaro parasitoekiko alerjiaren kasuan, berriz, tenperatura aldaketak ez dira batere komenigarriak eta hau-



**BITTOR IRIGOIEN**  
(medikua)

tsak, keak, tabakoa etab. ere ez. Eta etxean, eskoba pasatu beharrean, hobe da aspiradora erabiltzea eta trapu buzti bat pasatzea lehio, ate eta pisutik; gomaespumako koltxoi eta almohada erabili; zerealik ez gorde etxean eta

etxeko animaliak dauden tokietan ez sartu.

Polinosia daukateneztat udaberri eta uda garaian hobe da mendira ez joatea, haize handia dagoen egunetan leku ondo itxietan egotea. Eta ahal dutenean, urte sasoi honetako astebukaeretan kostara alde egitea.

Etxeko animalien azalarekiko hipersentsibildade kliniko kasuetan onena etxeko animaliak etxeko girotik aldentzea da eta ikuilu eta horrelakoetan ez sartzea.

Zereal eta irinarekiko alerjia bada, horiek ezabatzea da aproposena eta giroko hongoekeko alerjia kasuetan, azkenik, etxea siku mantendu (hezetasuna dagoenean sortzen baitira) eta kosta eta leku hezeetara ahalik eta gutxien hurbiltzea da egokiena.

**- Eta zein da jasan beharreko tratamendua?**

- Alerjia eragingo duten bitartekari kimikoen liberazioa sortaraziko duten medikamentuak hartu edota inflamazioa gutxitzen duten kortikoideak hartu. Eta horrekin ez bada alerjiaren kontrola lortzen, immunoterapia espezifikora jo (modu desegokian bakuna deiturikoak). Gaisoarengana eragina duten alergenoren dosi gero eta handiagoak ematea.

**"Alerjiak ebitatzea oso nekeza da baina badira jarraitu beharreko gomendio batzuk"**



Udaberria eta udan polinosi kasuak ugaritzen dira; mendira ez joan eta kostara alde egitea komenigarria izaten da.

**MAKAILO**

Makailau  
kazuelak  
gertatzen ditugu

**ETXEA**

Ibargarai 15




**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea**

**HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN  
GOIZEKO 9ETATIK ZBALIK**

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62



**EUREN SORBALDEK 65 ZM.ko ZABALERA DUTE.  
ZE NEURRI DAUKATE ZURE GELAKO HORMEK?**

Zatoz Levi's-en azken spot-aren protagonistak diren neska eta mutilaren posterra hartzera. Zeuk aukeratu zure gela apaintzeko posterra.

**Levi's**

***Cristina***

**Arruriaga, z/g ☎ 76 03 04 BERGARA**

**G**ure herrira due-  
la 10-15 urte in-  
guru kanpotik  
etortzen zen jendea, "po-  
tzura" batez ere eta herri-  
ko gazteek ez zeukaten  
kanpora irten beharrik.

Azken urteotan herri-  
ko asteburuetako "mar-  
txak" beherantz egin du.  
Ondorioz 15-20 urte bi-  
tarteko gazte askok la-  
runbat eta igandeetan her-  
ritik kanpora irtetzen du  
ambiente eta martxa bila.  
Herrian gelditzen direnak  
asteburua kirola eta juer-  
ga egiteko erabiltzen du-  
te. Hori da Esther Ibabe  
15 urteko ikaslearen ka-  
sua. *"Ostiral arratsalde-  
an balonmano entrena-  
menduak izaten ditugu  
eta larunbatetan berriz  
partidua jokatzen dugu.  
Larunbat arratsaldean  
poteotxo bat egiten dugu  
eta gauean, etxean laga-  
tzen badidate, poteatze-  
ra irtetzen dut"*.

Isabel Sanchez, 16 ur-  
tekoa, asteburuetan ez da  
Bergaran gelditzen, El-  
goibarrera joaten da la-  
runbat arratsaldetan ba-  
tez ere. *"Gure herrian la-  
runbat arratsaldetan ez  
dabil jenderik eta kalean  
ez dago girorik. Elgoiba-  
rren berriz jende gehiago  
ibiltzen da eta ambientea  
askoz bobea da"*. Aurreko  
biekin etorritako 15 urte-  
ko Rocio Osunak adierazi  
digunez gure herriko  
asteburuak "agobio" bat  
dira. *"Hemen ez dago  
ezer, beti gauza berdinak  
daude. Taberna guztiek  
musika berdina jartzen  
dute eta azkenean mo-  
notonoa da"*.

Hiru gazte hauek ga-  
uetan goiz joan behar du-  
te etxera eta horregatik  
eguna aprobetxatu beha-  
rra dute. *"Egunean zehar  
eguraldi ona egiten badu  
mendira edo parkera joa-  
ten gara. Bestela taber-*



Asteburuetan martxa eta parranda nahi duenak, ia derrigorrez, tabernarik-taberna ibili behar du. Nahiz eta gero eta gaztetxo gutxiago dabilen tabernetatik poteoan.

# Asteburuetako

**Asteburua heldu da eta gehienok egin ditugu denbora librea pasatzeko gure planak. Gazteek ohiturari eutsiz hurrengo bi egunetan juerga giroari helduko diote. Askok esan digutenez gure herriko giroa beherantz doa eta martxa bila kanpora irten behar dute. Baina beste batzuk gure herrian gelditzen dira. Horri buruz hitz egin dugu hainbat gazterekin.**

*Nola pasatzen dute  
asteburua herriko gazteek?*

# martxa

*netan edo jolastokian ematen dugu denborarik gebiena, benetan gure herrian tabernaz aparte asteburuan ez dago gauza asko egiteko. Antzuolan gazteek gaztetxea dute eta bertan futbolina, jolasak etab dituzte, uste dut badugula gazteok lokal baten beharra, batez ere eguraldi txarra egiten duenean ez dugulako non egoten"* dio Esther Ibabek.

Gure herrian, 3 nes-  
kok esan digutenaren arabera, behintzat, aste-  
burutan eurentzako mo-  
duko girorik ez dago. Ho-  
rri irtenbideren bat aur-  
kitzeko proposamenak  
eskatu dizkiegu eta ezkor  
azaldu dira. *"Hemen oso  
zaila da giroa berpiztea,  
jendea gero eta gehiago  
irtetzen da kanpora. Nire  
amak esaten dit bera gaz-  
tea zenean inguruko he-  
rrietakoak Bergarara*

*etortzen zirela, baina  
orain etorri beharrean  
alde egiten dugu"* dio Isa-  
bel Sanchezek.

## Gazteen elkarteak

Asteburuetan parran-  
da edo kirola egiteaz  
aparte, gazteek beste  
ekintza batzuk ere egiten  
dituzte. Beste batzuen ar-  
tean Aske denbora libre-  
ko taldea dago. Hauek as-  
tebukaeretan 7. mailatik

# Elgoibar, gazteen topagune

**Herriko gazteen artean asteburuetan zer egiten duten galdetzean askok larunbat arratsaldetan Elgoibarrera joaten direla adierazi digute. Elgoibarrek zer duen ikustera pasa den larunbat arratsaldean joan ginen eta ikusitakoak harrিতuta utzi gintuen. Lauretatik aurrera taberna guztiak 15 urtetik 25 urtera bitarteko gaztez beteta aurkitzen ziren. Tabernak modan dagoen "bakalao" musika jartzen zuten eta gazteak han zebiltzan jo ta ke dantzan, argi desberdinekin apaindutako tabernetan. Gazteen artean nabarmena zen bergararren presentzia eta ez da harritzekoa, gure herritik Elgoibarrera autobusa baitago eta bidean zehar asko ziren auto stopa egiten ari zirenak. Zarata eta dantza artean bi ordu inguru pasa ondoren Bergarara itzuli ginen eta harritzekoa zen Elgoibarrekin konparatuz gure herriak bizi duen trankilidadea batzuentzat eta "mobida" falta beste batzuentzat. Bergara "hilik" zegoen.**

eta BBBko 1go mailara bitarteko gazteekin hainbat ekintza antolatzen dituzte. Taldea 18 urtetik 27ra bitarteko 17 gaztez osatuta dago eta asteburuetan jolasak, eskulanak eta irteerak (adibidez pasa den larunbatean autobus oso bat izotzetan patinatzerara Gasteizera eraman zuten) antolatzen dituzte. "Taldea duela 6 urte sortu zen gure herrian aisialdiari dagokionez nabiko hutsune nabarmena zegoen eta hori betetzeko asmoarekin sortu genuen. Ostiralero elkartzen gara eta asteburu-

rako ekintzak programatzen ditugu. Gu haurrekin bakarrik ez gara ibiltzen gure artean ere baditugu harremanak. Begiraleentzako astebukaerako irteerak egiten ditugu, haurrek ondo pasatzen dute, baina guk ere aisia pasatzen dugu" dioskue taldeko kideek.

### "Jendea ez da mugitzen"

Aurreko hiru neskek adierazi digutenez gure herriko giroa nahiko motela da eta horregatik kanpora irtetzen dute. As-

ke taldean dabilten gazteak gure herrian gelditzen dira. "Bergaran talde pila bat dago eta guztiak zabalak dira. Ekin-tzak ere antolatzen dira, kontzertuak, mendiko irteerak, futbito txapelketa, Jarduneko gazte taldea, gazteen mugimendu politikoak... Jendeak nahi badu baditu aukerak, baina errezena poteatzen gelditzea da" diote gazte taldekoek.

Halere taldeen arteko koordinazio falta ikusteko Udalaren partaidetza eskatzen dute. "Bakoitzak bere aldetik gabilta baina astebururako ekintza konkretu batzuen antolatzeko koordinazioa falta da eta Udalak koordinatu abalko luke. Baina, berriz ere gaztearen pasibitatea azpimarratzen dute. "Urtean zehar ekitaldi asko antola-



Astebukaeretan batez ere, jolas aretoa gazteen topagune bihurtzen da.

## NAHIKARI TABERNA

Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

**ARGAZKI  
ERAKUSKETA**

1994ko MARTXOA



## GALLASTEGI

*Jostundegia*

mahoizko lanerako  
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85



Aske taldea astebururo haurren aisialdia betetzen saiatzen da. Halere astebukaeratarako gazteei bideratutako ekitaldi gehiago eskatzen dute.

**"Bergaran talde pila bat dago eta guztiak zabalak dira. Ekintzak ere antolatzen dira, kontzertuak, mendiko irteerak... Jendeak nahi badu baditu aukerak, baina errezena poteatzen gelditzea da"**

**ASKE ATSEDEN TALDEA**

*tzen dira eta gazteen artean gutxik lortzen dute interesa. Orain arte Herri Olinpiadek lortu dute gazteriaren artean interesa piztea".*

**Asteburuetan ekintza kulturalak**

Gure herriko gazteria itxia dela uste dute Askekoek. "Gu oso itxiak gara eta bakoitza bere kuadrilarekin dabil. Beste herri batzuetan gazteak elkarren arteko harreman hobekak dituzte".

Gazteei Bergaran asteburu normal batean zer egiten duten galdetu diegu eta gutxi gora-behera guztiak plan antzerakoak egiten dituzte. "Ostiral iluntzean bilera egiten dugu hurrengo eguneko plana zehazteko eta ondoren gauzez tabernetatik bueltatxo bat ematen dugu. Larunbat goizean lo edo ikasi egiten dugu eta arratsaldean haurrekin izaten gara. Ondoren poteotxo bat egiten dugu eta gauzez kafea hartu ondoren kuadrilan kontuak kontatzen tabernaz taberna ibiltzen gara.

*Igande goizean lo egin edo mendira irtetzen dugu eta arratsaldean etxean, zinemara, futbolera berriz tabernara edo bakoitzak abal duena egiten du. Batzutan kanpo-*

*ra irtetzen dugu, baina ez dugu kotxerik eta gebienetan herrian gelditu beharra dugu. Baina martxa egun batean onena Bergara da".*

Tabernaz taberna ibiltzen dira eta ondo pasatzeko alkohola edo beste drogaren bat beharrezkoa den galdetu diegu. "Jaietan eta bai, baina asteburuetan ez. Gure ustez ez da derrigorrezkoa edatea. Gainera hori konprobatatua dugu, umeei bi ordu pasatzen dugu eta eurak baino hobeto pasatzen dugu. Ikusten dugu nabiko mugatuta gaudela, taberna batean dantzan edo hasten bazara jendea begira gelditzen zaitzu eta lotsa ematen du. Hemen ezin dira gauza batzuk egin, jende guztia gainean baitago".

## Verdury Hall berria?

**Herriko gazte talde batek "Juventudes Parroquiales" sortu zuenean, 1968an, dirua ateratzeko plazako merkatuan larunbat eta igande gauetan dantzaldiak antolatzen zituen. Bertara garai haretako modako taldeak joaten ziren eta dantzaldiek laister hartu zuten ospea. Inguruko herrietako jende ugari etortzen zen eta gazteen artean "Verdury Hall" izenaz ezagutzen zen. "Dantzaldiak gaueko 10etan hasten ziren eta goizeko ordubiak arte irauten zuten. Antolakuntzaz gazteok arduratzen ginen eta arrainak saltzeko postu batean edariak saltzen genituen. Dantzaldia amaitu ondoren dena garbitzen genuen astelehenarako dendariak guztia garbi edukitzeko" dio Patxi Berraondok, Verdury Halleko antolatzaileetariko batek. Merkatu berria ekainean zabaltzekotan dela eta gazteentzako dantzaldiak antolatzeko ere erabiltzeko proposamenak jarri dira mahai gainean. 20 urte beranduago "Verdury" berria?... Ez litzateke ideia batere txarra izango.**

## ESTATU BATUETATIK BERGARARA

### "LA PUERTA AL INGLES" AKADEMIAK GAZTE AMERIKANOAK UZTAILEAN ETXEAN HARTZEKO AUKERA EMATEN DIZUE

Rene Waterhouse Bergarako "La puerta al inglés" hizkuntza akademiako arduraduna da. Urteak daramatza herrian ingelasa erakusten eta aurtengo udan esperientzia berri bat jarri nahi du martxan. Estatu Batuetako gazte talde bat ekarri nahi du Bergarara, gaztelera ikasi dezaten. Iparramerikarrak uztailean etorriko lirateke Bergarara eta bergararrek hartuko lituzkete euren etxeetan. Esperientzia sakonago kontatuko digu Renek berak:

- Nekazal turismoa moda-modan dagoen moduan, guk hizkuntza turismoa bultzatu nahi dugu, hau da, hizkuntza ikasteaz gain, bertako ohiturak, ingurua, ondarea, historia eta abarrek ezagutzeko aukera eman nahi diegu bertara etortzen direnei.

- Zenbat etorriko dira?

- Asmoa 25 bat gazte ekartzea da, 14-18 urte bitarteko gazteak.

- Estatu Batuetako eta Euskal Herriko kultura ezagutzeko elkarren arteko harremanak sendotu nahi dituzue?

- Bai, hori da, kultura interkanbio bat izango da, zeren Estatu Batuetatik datozenak bergararren etxe-

"LA PUERTA AL INGLES". Burdiñate, 5. ☎ 76 30 01



RENE WATERHOUSE, "LA PUERTA AL INGLÉS" AKADEMIAKO ARDURADUNA.

**THE BASQUE COUNTRY  
AWAITS YOU.**

**AND ENJOY YOURSELF.**

etan biziko dira hemen daudden bitartean eta, beraz, harremana zuzen-zuzena izango da.

- Noiz etorriko dira?

- Uztail hasieran eta 20-25 bat egun izango dira bertan.

- Etxean hartzen dituztenekin igaroko dute egun guztia?

- Ez. Egunean zehar guk

antolatuko dizkiegun hainbat ihardueretan parte hartuko dute. Akademian gaztelera erakutsiko diegu eta, horrez gain, egun guttirako irteerak, hondartzara, mendira, edota inguruko herrietara irteerak antolatuko dizkiegu. Etxeetan, goizean, gosaltzerakoan eta gauean afaldu eta lo egiteko izango dira, bai-

na eguneko gainontzeko orduetan geurekin izango dira.

- Hala ere herritarrekin harreman zuzena izango dute ez?

- Bai, horrela da. Gure asmoa jai egunetan, aste-bukaeretan edota egunero iluntze partean etxean hartzen dituztenekin eta beren lagunekin ibili daitezela da: kalera irten daitezela, errekin jolastu dezatela, tabernarik-taberna irten edota inguruko herrietako jaietara ere eurekin joan daitezela. San Martzial, Santa Marina, Antzuola edota Soroluzeko jaiak disfrutatu ditzatela da asmoa, hitz batean esanda, herritarrekin harreman zuzen-zuzena izan dezatela eta Euskal Herriaren benetako irudirik har dezatela.

- Eta etxe bakoitzak zenbat hartuko lituzke?

- Etxe bakoitzean bat gaztelera ikasi eta praktikatuz dezaten komenigarria da horrela izatea.

- Zer egin behar du Estatu Batuetatik etorriko diren gazte horietatik bat bere etxean hartu nahi duen bergararrak?

- "La puerta al inglés" akademian informazioa eskatu edota bestela telefonoz hots egin.

**RENE WATERHOUSE:**

**"AMERIKARREN ETA BERGARARREN ARTEKO HARREMANAK BULTZATU NAHI DITUGU"**



# Jubilatuetakoko jatetxea

## ETXEAN MODUAN

**Pasa den urriaren 4ean jarri zen martxan Jubilatuetako komedore zerbitzua.**

5 hilabete bete ditu jandantik eta orain arte jasotako emaitzak ezagutu nahi izan ditugu. Hasieran 7-8 bat hasi ziren Jubilatuetan bazkaltzen eta orain 15-17 jubilatutako biltzen dira egunero, bertan bazkaltzeko asmoz. Astelehenetik larunbatera bitartean ordubata t'erdietan izaten da bazkaria eta igandean, berriz, ordubete beranduago, ordubi t'erdietan. Aurrez, astean zehar izango duten menua jakin arazten zaie eta oraingoz behintzat ez dute inolako kezarik emandako zerbitzuaz.

Reyes Korkostegik (77 urte) eta Floren Murgiondok (80 urte), esate baterako, beren andrekin bertan bazkaltzen dute egunero. Reyesek aipatzen duen bezala, "Florenek basieratik dibardu bemen bazkaltzen baina ni pixkat beranduago hasi nintzen etortzen, andreari mokorra hautsi zitzaionetik; orain biok etortzen gara eta zerbitzua

benetan ikaragarri onada. Baina badirudi jende batek erreparoa dituela hona etortzeko. Zer esango ote duten beldur, baundikerixa asko dago. Prejuizio tontoak dira horiek, azken batean ia familixan bezala bait gaude bemen; guztiok ezagutzen dugu elkar eta umore onean egoten gara bemen".

Florenek gaineratu duenez, "gu, andra-gizo-

nok etortzen gara eta jatorduak pertsona zabarrantzako egokiak direla esango nuke. Hitz baten, etxeko jatorduen estilora, oso bariaua eta medikuak gomendatuta, aurrez asteko plana eginez. Gainera bentaja bat ere badauka: ez dago erosketa edota garbiketa egin beharrik. Eta badakizu, norberak gertatu behar duenean bazkaria... ba batzutan txartoago".

Reyesen hitzetan "soldadutzan bezala: dagoena jan eta aurrera. Baina esaten dizut, ondo gertatutako jana; grasa gutxiarekin, etab., guri komeni zaiguna. Gaur (asteazkenean) adibidez, paella, arraina eta laranja bat eman digute".

Menua, esan bezala, bi plater, postrea eta ura litzateke (kafea eta ardaa aparte) eta prezioa 430 pza.



430 pza.gatik primerako bazkaria eskaintzen du Jubilatuetako jantokiak.

# IGARZA

**MERZERIA  
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

# AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

## Jatetxea

## UDABERRIA

### Horren gustoko dugun urtaroa

Laister datorkigu horren gustoko eta nahitanahiezko dugun garai dotorea: Udaberria. Bai, zelaiak orlegi koloreko itxura xarmanta hartzen duten eta, bestalde, txorien kantu miresgarriak oraindik gehiago leuntzen diren denboraldi kuttuna. Tenperaturek pixkanaka-pixkanaka izan arren ere, goranzkako joera hartzen dute eta normalki zeruan egunetik-egunera gero eta ostarte gehiago begiaztatzen ditugu. Zuhaitzak ere euren itxura ohizkoa usaintzen hasten dira eta horrela, beraien abarretan zehar eta gusto guztietako ostoa koloredun eta tamaina aldakorak nabarmen ditzakegu. Gure sudurrek udaberriak dakartzan usai lirain eta berezkoak erakartzeko zorte itzela izan ohi dute orain arte, eta guk poliki-poliki horren beharrezko eta aproposak diren udako oporraldiak gertuago

sentitzen joaten gara. Ikasketetan urteko azken "sprint" a botatzeko uea iristen zaigu eta bitartean (eta zoritxarrez...) gu konturatu gabe futbol-ligako denboraldia amaitzen ari zaigu. Dagoeneko udarari begira, Euskal-Herriko eta mundu osoko hondartzak guk beraiez ongi eta inolako ezbeharririk gabe gozatzeko aukera izan dezagun, euren prestakuntzak burutzen hasten dira.

---

**Dударик gabe,  
Udaberria gazteok  
(eta baita zaharrak  
ere) horren  
premiazko edo  
beharrezkotzat  
daukagun  
maitasunaren bidez  
bakoitzaren bikote  
preziatua  
eskuratzeko garai  
guztiz aproposa da**

Dударик gabe, udaberria gazteok (eta baita zaharrek ere) horren premiazko edo beharrezkotzat daukagun maitasunaren bidez bakoitzaren bikote preziatua eskuratzeko garai guztiz aproposa da. Hala ere, batzuk ez daukate udaberrira arte itxaron beharrik eta edozein urtarotan lortzen dute beraien ametsak egia bihurtzea... Zorionak!. Betidanik entzun ahal izan dugu honako esaera antzeko hau: "La primavera la sangre altera". Egia ote? Nik ere, egia esan, zalantza askotxo dauzkat esaldi honen inguruan, baina zergatik ezin da horrela izan? Baliteke esaldi honek errealitatea isladatzea eta horrela gu udaberri garaian aztoratu xamar ibiliko ginatke. Badakizue, azken azterketen hurbiltasunak, udako opor bikainak lehenbailehen iristeko gogoak, futbol-liga nork irabaziko duen jakiteko

jakinminak eta gure bikotea eskuratzeko nahiak gure buruak pixka bat aztoratzen eraman gaitzakete. Beno, hala ere, udaberria hanka onez hasi eta berdinarekin amai dezazuela.

M.E.P.E.

# ARANZADI IKASTOLA

## 7. ZENBAKIA

### Negu zaharra, udaberria

Udaberrian, zorionak gerturaten omen dira, egun luzeagoez, bizitzaren berpizte nabarmenaren laguntzaz, maitasun berrien ataria argituz. Ikuspegi orokor horren ondoan, dena den, niri ez zait horrelako sentzazio positiborik gerturatzen. Zoritxarra zorionaren zati denez, bada lekuri zoritxarrentzat ere. Mundu guztia zorionean bizi den urtaro honetan, ez dut "goibeltzailea" izan nahi, baina aipatzea besterik ez dut nahi, eguraldi onak nahiz loreen loratzeak ez dakarrela zorion bide zehatzik.

AUSKALO

### Lorez jantzi da mendia...

Udaberria heldu da eta lorez jantzi da mendia beti bezala garai honetan irtetzen da eguzkia zuhaitz gainera igo ohi da udaberian txoria nire bihotza emango nuke hori ez badek egia

Udaberriko edertasunak alai dezake Bergara Pol-Pol mendia ikus daiteke Alpeetako erara udaberriro Euskalerrian hobetzen dugu Euskara uda iritsi ta ahaztuko dugu Ingelesa eta Erdara

Doinua: Pello Joxepe

ENERITZ ETA IRMA




### Udaberriak odola berotzen duela egia ote?

Bada erderaz esaldi bat ondorengoa esaten diguna: "La primavera la sangre altera" Egia ote hori? Udaberriak poza eta bizitasuna ematen digu, aurrera segitzeko gogoia.

Udaberria arrosa gorritz estalia klabelin zuriz inguratua. Eguzkiaren izpiz hornitua eta txori kantuez betea. Zelai berde eta lautadatsa zeru urdin eta argitsu. Olatu bareak itsasoan, arrain txikiak erreketan. Udaberrian beste inon aurki al dezakegu horrelakorik?

BATEN BAT

# Bergarako gazteek badute herrian astebukaera ondo pasatzeko aukerarik?



**Markos Gabilondo**

50 urte, langilea

Gazteei entzun izan diet ondo pasatzeko gauza gehiegirik ez dagoela Bergaran, ez dakit. Hala ere, azken urteetan herriko giroa asko jeitsi da



**Mari Carmen Aranzabal**

44 urte, langilea


Tabernak besterik ez dauzkatela uste dut. Dantzaleku bat edo eduki beharko lukete, gure denboretan bageneukan eta.



**Mikel Larrañaga**

20 urte, langilea


Rock kontzertuak eta horrelakoak antolatzeke tokiak faltan botatzen ditut nik.



**Amaia Etxeberria**

17 urte, ikaslea

Astebukaera guztiak berdinak dira, aspergarriak dira eta ez daukagu gauza haundirik ondo pasatzeko..., beti tabernetan sartuta.



**Juan Antonio Fernandez**

51 urte, langilea


Gauza asko falta zaiela uste dut, diskoteka bat esate baterako, baina hori bai, ordutegi formal batekin, gabeko ordubiak arte edo...



**Ainhoa Barrenetxea**

15 urte, ikaslea

Taberna gehiago egon beharko lirateke, eta ambiente gehiago, jendeak herritik alde egiten du astebukaeretan eta hau hutsik geratzen da.



**POL-POL**

TABERNA

☎ 76 07 7

**DEPORTIVO**

TABERNA

☎ 76 01 51

**EDEL**

TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14, BERGARA**



## Bergarako gazteen portaera

**O**beto esango nuke erderazko itz batekin; edukazioa.

Urtetan aurrera goazenak gure gazte denboretatik alde handia ikusten dugu. Orduan ez bakarrik zarrentzat zaukagun begirune eta errespetua, baizik eta edozein pertsonarentzat ere bai. Orain entzuten diren itz itxusirik ere ez zen entzuten. Eta errian ainbeste saski daude len ikusten ez zirenak, eta orain len baño zikinagoa ageri da.

Gazteak zakar guztiak lurrera botatzen dituztelako; eta abar eta abar; ainbeste gauzatan agertzen da edukazioa galdu egin dela gure artean. Badakit askok zer esango duten, oriek tontokeriak direla, baina ez da ala.

Ni munduan zear piska bat ibili naiz eta auxe ikusi dut: edukaziozko pertsona onartzen dela eta ate asko zabaltzen zaiola. Ez pentsatu gure denborako umeak onak edo oraingoak baino obeak zirenik. Pertsona bere grina txar edo onekin jaiotzen da len eta orain baina len erakusten ziguten nola portatu edukaziozko pertsona bezala. Orain ez dut ezer esan nai gure eliza eta etxe ederretan idazten dituztenengatik; nik uste dut oriek oso gutxi direla gure errian.

Arri landuetan idatzi? Eta zelako itz lotsagarriak! Baina emengoak ote dira ain ezjakinak eta baldarrak? Baldin badira ere gure erri eder onetan bizitzerik ez dute merezi.

**Asuntxi IDARRETA**



## Kontsumitzaileen eguna dela eta

**A**urreko asteartean emakume langilearen nazioarteko eguna ospatu genuen bezalaxe, aste honetakoan kontsumitzailearena ospatu berri dugu. Badirudi gizarte honentzako nahikoa dela zigortuen dauzkan pertsona edo sektoreei urtean egun bat dedikatzea, eta beste guztietan aintzakotzat hartu barik ere, aurrera.

Janariari dagokionez, denok gara erosle edo kontsumitzaile eta guztiok galdu dugu, maila batean, erosten genuen horrekiko genuen konfidantza. Adibide bat jartzearren, hor dugu "takian potian" azaltzen zaigun "klenbuterolarena", gizentzeko ganaduari emanez gero, grasa gutxiago eta muskulo gehiago produzitzen laguntzen duen hormona. Azken urteetan Estadu guztiatik datozen ganaduen analisisen ondorioz dudarik gabe esan daiteke, intentsibo edo industrialki produzitzen den Estaduko zonaldeetatik datorkigula halako haragia, eta bere erabilerak eragin zuzen eta txarra izan dezakeela gure osasunean.

Hiltegiatan egiten dira analisiak, baina gutxitan azaltzen dute produktu horren presentzia. Hala ere, badakigu hil aurretik eman gabeko epe luzeagoak gordetzen direla, produkturik ez aurkitzeko moduan eta zonalde horietako gobernuek ez dutela analisirik egin nahi. Horrela, osasunari egiten zaion kaltea disimulatu daiteke, ez ordea, ohizko kalitatezko produzitzeko eraren alde dauden eta horretan dirauten gure baserriarrei egiten zaien kompetentzia ezleiala eta kaltea. Horregatik, eska dezagun, eta urte guztian, kontrolak behar den tokian, han, granjetan bertan, egin daitezela. Kalitatearen aldeko jarrerak bere kostoa du, baina horixe da bide bakarra eroslearen konfidantza izan eta hemengo baserriarrek irauten ahal izateko.

**Maite ARISTEGI**

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono, 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

**Bazkariak  
eta  
afariak**

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

**ES** oto istema *APBénis*

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Ezkerretik eskumara Juan Antonio Unzurrunzaga, Victoriano Gallastegi, Luis Abajo eta Agustin Gurrutxaga eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kideak. Lokalak 110 m2 inguru ditu eta, dudarik ez, gurtekoa baino askoz ere aukera handiagoak (tartean argazkian ikus daitekeen estudioa) ematen ditu. Ostiraleko inaugurazioaren ondoren luntxa banatu zitzaizen Zabalotegiko lokal berrian bildutakoei.

**Pol-Pol Argazki Taldearen lokal berria**

Ostiralean inauguratu zen **Pol-Pol Argazki Taldearen** lokal berria Zabalotegi 5ean. Bertan izan ziren, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Luis Abajo eta Koldo Pereira zinegotziak, Rufina Olasagasti Kultur Jestorea, Xabier Aranburu udal muselogoa eta, nola ez, Pol-Pol Argazki Taldeko kideak. Dani Santosek zuzentzen duen taldean 22 bazkide dira egun. Azken 3 urteotan Kultur Etxean izan duten lokala utzi eta egoitza berria estreinatu dute Pol-Polekoek.

**Arostegiko Etxeko pintadak kentzen**

Asteazken goizean **Kalicot** berriztapen enpresako bi langile **Arostegi Etxeko** atean azaldutako pintadak garbitze lanetan izan ziren. Azkenean pintura ez zen gehiegi sartu egurrean eta, pintadak kentzeaz gain, XVI. mendeko atearren beheko partea ere garbitu zuten Kalicoteko langileek. Lan honek 15.000 pta. inguruko aurrekontua izan du.



Arostegi Etxeko pintadak kentzeko lanak asteazkenean bertan amaitu ziren eta langileek protektore bat eman zioten ateari.

**ileapaindegia**  
**eder gela**

**disdira**

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



**ITXASMENDI**

**Taberna**

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
**BERGARA**

**Josefa Urkijok 100 urte larunbatean**

**Josefa Urkijo Ortuzar** bergararrak (**Ezequiel Izaren** alargunak) 100 urte egingo ditu larunbatean, San Jose egunean. 1894an jaio zen Josefa Bilbon eta 38 urte zituela Bergarara etorri zen. Ezequiel eta Josefak 3 alaba izan zituzten eta ondoren, 7 iloba eta 8 birloba. Josefa beti egon da osasun aldetik primeran baina orain hilabete inguru jausi eta sorbaldan mina hartu zuen, orain ohean dagoelarik. Zorionak Josefari eta ea laister errekerperatzen den 100 urte horiek behar bezala familiartekoekin ospatzeko.



Josefa Nere eta lñaki birloben artean. Bere hitzetan, "100 urtera iristeko sekretua bere burua asko zaïndu, denetarik jan eta gehiegi-keriarik ez egitea izan da".

**Zuhaitz eguna**

**Zuhaitz eguna 94 ospatu zen** larunbatean Gipuzkoako hainbat herritan. Bergaran ere, larunbat goizean, 40 bat gaztetxo San Martzial aldera abiatu ziren autobusez eta berehala haritz, pago edota gaztainondoak landatzeari ekin zioten. Ilusio haundiz egindako lanaren truke, ogibitarteko eta edari bana jaso zuten. Lanaren emaitzak ikusteko, berriz, itxaron egin behar...



Eguraldiak lagundu ez zuen arren, gaztetxoek gogo haundiz hartu zuten parte Zuhaitz Egunean.

**Zertan dibardute ba?**



**Manu Iztueta**

36 urteko akordeoilari bergararra, azken lau edizioetan bezala, Euskadi Irratiak antolatzen duen Trikiti Pieza Berrien Lehiaketako finalean epai-mahaian arituko da San Jose egunean Azeptitlan. Iztueta urtetan plazarik-plaza ibilia da *Berakatz Band* taldearekin. Gaur egun *Alai* taldearekin ezkontza bazkariak alaitzen ibiltzen da. Bergarako Musika Eskolaren sorreran akordeoi klaseak eman zituen. Bi urtetik behin antolatzen den Euskadiko Trikitixa Txapelketako epai-mahaian ere egon izan da. *"Esperientzia oso aberasgarria da, baina trikiti zabarra edota berria dela eta, azken urteetan izan diren gora-beberek burubauste ugari sortarazten didate"* esan digu.

**SUBIJA**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



**DEBA GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

**KONDE**



**PANADEROKUA**


Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

# Juan Luis Bikuña

## Kazetaria

Juan Luis Bikuña 48 urteko bergararrak 10 urte bete zituen ETBn pasa den abenduan. Informatiboetako hainbat saiotan izan ondoren, gaur egun ETB-2ko "Teleberri"ko aurkezlea da.

- ETB-1 ala ETB-2?
- ETB.
- Zuzenekoa ala *enlataua*?
- Zuzenekoa.
- Mahai ingurua ala informatiboa?
- Guztia da informazioa.
- Aurkezpena bakarrik ala lagunduta?
- Lagunduta.
- Zein albiste kostatu zaizu gehien ematea?
- Zaila da aukeratzea.
- Eta zein ematea nahi zenuke?
- Terrorismoa bukatu dela.
- Zappingik egiten al duzu?
- Bai.
- ETBko programarik onena?
- "Txuri-beltz" eta "Gezurra nagusi".
- Eta telebistako txarrena?



*"Terrorismoa bukatu deneko albiste ematea gustatuko litzaidake. Zappinga egiten dut bai, eta ez dut uste ETBk reality showrik egingo duenik. ETBko programen artean Txuri-beltz eta Gezurra nagusi gustatzen zaizkit"*

- "Lo que necesitas es amor" eta "La maquina de la verdad".
- ETBk egingo du reality-showrik?
- Ez dut uste.
- "Dragoi bola" ala "Los Simpsons"?
- Los Simpsons.
- Kotxean irratia ala musika.
- Irratia.
- Kantante bat.
- Benito Lertxundi.
- Zezenak, Pazkuetan ala Sanferminetan?
- Tenporadan.
- Curro Romero ala Jesulin de Ubrique?
- Curro Romero.
- Afeitauta gizonak ala zezenak?
- Ja! Gizonak.
- Oroitzapen on bat.
- Lagunek Sagar-Pen eskeini zidaten afaria.
- Soziedadetan emakumeak?
- Bai.
- Mania bat.
- Andreak dakizki guztiak.
- Eguneko momenturik onena.
- Gaua, lana bukatzen denean.
- Zeri beldurra?
- Errespetoa behintzat danari.
- Soldadutza bai ala ez?
- Nik egin nuen. Orain, bakoitzak berea...
- Maltzaga-Urbina autopista?
- Alde nago.

 **IZADI**  
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua  
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu. **Taberna**

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparateak...

Amilaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Iker Igarza

**IKER IGARZA**k irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko galdera berak asmatu du, hain zuzen ere BONOFOTOAn agertzen zen etxearen izena galdetzen genuen eta erantzuna, Jauregi etxea zen. Erantzun asko jaso ditugu eta Ikerri tokatu zaio oraingoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Iker**, eta besteok segi jokatzeko saria lortu arte. Suerte!!

*Bergarako zein kaletan aurkitu dezakegu iturri hau?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria:  
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**

# ELKAR

Arruriaga, 1 behea BERGARA ☎ 76 58 16



- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- PLASTIFIKAZIOAK
- PLANOEN KOPIAK
- JENDEARENTZAKO FAXA

- ENKUADERNAZIOAK

- TERMO ENKOLATUAK
- BURDINAZKO ESPIRALAK
- PLASTIKOZKO ESPIRALAK
- FAZIKULOAK



ESKAINZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.

## KIROL EMAITZAK

### FUTBOLA

- Prefente maila:
  - Real Union 1-Bergara 0
  - Lehen Erregionala:
    - Bergara 2-Touring 1
- Lehen mailako jubenila:
  - Zarautz 3-Bergara 2
  - 2. mailako jubenila
    - Bergara 1-Intxurre 4
- Lehen mailako kadetea:
  - Bergara 5-Eibar 3
  - 2. mailako kadetea:
    - Amaraz 4-Bergara 2
- Lehen mailako infantila
  - Bergara 7-Ordizia 1

### ESKUBALOIA

- Senior mutilak:
  - Bergara 16-Hernani 24
  - Jubenil mutilak:
    - Beasain 19-Bergara 24
  - Jubenil neska
    - Bergara 14-Pulpo 10
    - Kadete mutilak
      - Aloña Mendi 19-Bergara 18

### SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak:
  - Ordizia 60-Bergara 63

### PELOTA

- Deba Arroa binaka:
  - Inf: Elgoibar 13-Bergara 18
  - Jub: Elgoibar 5-Bergara 22
  - Sen: Elgoibar 22-Berg. 20
  - Euskal liga:
    - Bergara 18-Zaramaga 9
    - (Jubenilak banaka)
    - San Cosme 14-Bergara 22
    - (Jubenilak binaka)

### GIMNASIA

- Ariznoa Gimnasia Erritmiko
- Taldeak Gipuzkoako
- Txapelketako finalerako
- postua lortu zuen igandean
- Altzan. Lau talderen artean
- onenak izan ziren
- bergararrak.



Ezkerretik eskumara Marian Valdivieso entrenatzailea, Lierni Lázaro, Maite Azpiri eta Bilaitz Marzan. Atletismo Eskolakoez asteen hiru egunez entrenatzen dute.

## Gipuzkoako Atletismo Txapelketara

*Maite Azpiri, Lierni Lázaro eta Ion Mendizabalek 60 eta 150 m. hesietan gutxieneko markak lortu zituzten Ordizian*

**Bergarako Eskola Atletismo taldeak marka bikainak lortu zituen Ordizian. 60 eta 150 metro hesietan Ion Mendizabal, Maite Azpiri eta Lierni Lázarok Gipuzkoako Txapelketan parte hartu ahal izateko gutxieneko markak lortu zituzten. Ion Mendizabalek 60 metrotan 10 segundu eta ehuneneko bat markatu zituen eta 150 metrotan, berriz, 20 seg. eta ehuneneko bat. Maite Azpirik, bere aldetik, 11"1 60 metrotan eta 21"8 150 metro hesietan. Lierni Lázarok 11"2 eta 21"9 egin zituen eta azkenik, Bilaitz Marzanek gutxigatik ez zuen gutxieneko marka lortu, 11"7 eta 22"7 markatuz.**

**Marian Valdivieso dugu taldeko entrenatzailea eta aurten 13-14 urte bitarteko 16 neska-mutil ari dira Atletismo Eskolan. Asteen hiru egunez entrenatzen dute Poligonoko Aranzadi Ikastolan eta Agorrosinen. Oraindik ez da Gipuzkoako Txapelketako fetxarik zehaztu baina ziurrenik maiatzean jokatuko da Anoetan. Bergararrek beren markak hobetu eta dominaren bat lortzeko aukera izango dute orduan. Oraingo, eta lortutako emaitza onen sari gisa, martxoaren hasieran Donostian izandako Nazioarteko Atletismo Mitina ikusteko aukera izan zuten beste hainbat lagunekin batera. Ziur zerbait ikasiko zutela...**

## Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

## EGUREN GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

## GURIDI Altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

## 1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura	26	13	13	0	0	54	13
2. Errotagain	25	13	12	1	0	69	18
3. Tokieder	19	13	9	1	3	79	31
4. Angiozar	19	14	8	3	3	76	37
5. Bildurbarek LAM	18	14	9	0	5	68	57
6. Mongatxurra	15	14	7	1	6	54	38
7. Arloteak	15	13	6	3	4	42	45
8. Usoa	14	13	6	2	5	41	39
9. Bar Canalejas	13	12	5	3	4	35	37
10. Ogizun	11	14	4	3	7	42	49
11. Os Jardineiros	11	13	4	3	6	51	61
12. Guadalest	11	13	4	3	6	30	48
13. Ezinleike	11	14	4	3	7	39	64
14. Akort Ariznoa	10	14	4	2	7	57	59
15. Kriston Potruak	9	13	4	2	7	57	59
16. Nahikari Hool.	9	13	3	3	7	31	42
17. Soropotroak	8	14	4	0	10	37	49
18. OH Zerezos	8	14	4	1	9	41	69
19. Kriterium	7	14	2	3	9	35	56
20. Shaktale	7	13	3	1	9	28	75

## 2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	35	20	17	1	2	106	50
2. Kalimotxo	34	20	17	0	3	117	49
3. Ufala	33	20	16	1	3	99	44
4. Hartu Zamak	33	20	16	1	3	103	57
5. Etxagi	32	20	15	3	2	126	55
6. Ozaeta	31	20	14	3	3	124	47
7. Revienta	31	20	15	1	4	83	51
8. Eri	27	20	12	3	5	104	62
9. Uve Bikoitza	26	20	12	2	6	107	75
10. Amozkibar	20	19	9	2	6	72	55
11. Igandekoak	20	19	10	0	9	64	70
12. Ari Ari	20	20	10	0	10	81	94
13. Kirolzaleak	19	19	9	1	9	71	81
14. Krai	18	19	9	0	10	85	81
15. Txipiron	17	20	6	5	9	54	66
16. Paok San Juan	16	19	7	3	9	58	65
17. Matalascañas	15	20	7	2	11	55	75
18. Labegarieta	13	20	5	3	12	41	107
19. Los Txupeta	12	20	5	2	13	48	72
20. Aldoka Maldoka	12	19	5	2	12	45	85
21. EH Biterrak	11	20	4	3	13	46	84
22. Pata Negra	11	20	5	1	14	55	106
23. Eusebio II	7	19	3	1	15	55	116
24. KK Usaina	0	18	0	0	18	32	141

## emaitzak

Shaktale	-	-	Nahikari Hool.
Soropotroak	1	3	Akort Ariznoa
OH Zerezos	3	2	Ogizun
Mongatxurra	1	3	Errotagain
Kriston Potruak	-	-	Madura
Arloteak	1	0	Bildurbarek LAM
Usoa	4	1	Kriterium
Azinleike	1	11	Angiozar

## hurrengo partiduak

• LARUNBATA •  
barruan

09.00: Usoa-Bar Canalejas (Guadalest)  
10.00: Guadalest-Tokieder (Usoa)  
17.30: Mongatxurra-Bildurb. (OH Zerez.)  
18.30: OH Zerezos-Kriterium (Mongatx.)

• IGANDEA •  
barruan

09.00: Errotagain-Madura (Akort Ariznoa)  
10.00: Kriston Potr.-Akort Arizn. (Shakt.)  
11.00: Shaktale-Bar Canalejas (K. Potr.)  
16.00: Arloteak-Tokieder (Nahik. Hool.)  
17.00: Guadalest-Nahikari Hool. (Sorop.)  
18.00: Soropotroak-Angiozar (Os Jardin.)  
19.00: Usoa-Os Jardineiros (Angiozar)

## Txinpartak

▼ Jardunaldi honetako partidurik interesgarriena, dudarik ez, lehen mailako lehen eta bigarren sailkatuek euren artean jokatu dutena. Madura (liderra) eta Errotagain (bigarrena) taldeek indarrak neurtuko dituzte igandean goizeko 9etan. Madurak ez du puntu bakar bat ere galdu jokatu dituen 13 partiduetan eta Errotagainek partidu bat berdintzeaz aparte, beste guztiak irabazi ditu.

▼ Antolaketa Batzordeak Bildurbarek LAM taldea zigortzea erabaki du azken partidura berandu heltzeagatik. Arloteak taldearen aurkako partidura hogei minutuko atzerapenez aurkeztu zen, horregatik neurketa 1 eta 0. Arloteak taldearen alde emateaz gain, bi puntu kendu dizkiote Bildurbarek LAMi antolatzaileek.

## Golegileak

LEHEN  
MAILA

1. F. Salinero (Ogizun) .... 32
2. I. Pagaldai (Angiozar) ... 25
3. I. Mujika (Tokieder) ... 23
4. B. Jimenez (Kris. P.) ... 22
5. Arriaran (Angiozar) ..... 20

BIGARREN  
MAILA

1. Agirrezabal (Kalim) ... 56
2. Agirrebeña (Ozaeta) ... 51
3. J. Izuskiza (Etxagi) ... 50
4. J. Larrañaga (Eri) ..... 43
5. A. Garitano (Arkupe) ... 38

## emaitzak

Labegarieta	2	11	Ozaeta
Igandekoak	3	2	Pata Negra
Etxagi	1	1	Revienta
Eusebio II	3	3	Krai
Kalimotxo	12	1	Ari Ari
EH Biterrak	1	5	Kirolzaleak
Amozkibar	2	2	Txipiron
Uve Bikoitza	12	4	Paok San Juan
Hartu Zamak	5	2	KK Usaina
Krai	5	3	Aldoka Maldoka
Arkupe	7	4	Matalascañas

## hurrengo partiduak

• LARUNBATA •  
kanpoan

09.00: Labegarieta-Eusebio II (EH Biter.)  
10.00: EH Biterrak- Los Txupeta (Ufala)  
11.00: Ufala-Pata Negra (Revienta)  
12.00: Igandekoak-Rev. (Paok San Juan)  
13.00: Krai-Paok San Juan (Igandekoak)  
17.30: Arkupe-KK Usaina (Etxagi)  
18.30: Etxagi-Aldoka Maldoka (KK Usai.)

• IGANDEA •  
kanpoan

09.00: Ari Ari-Txipiron (Uve Bikoitza)  
10.00: Uve Bikoitza-Ozaeta (Kirolzaleak)  
11.00: Kirolzaleak-Amozkibar (Ozaeta)

**KIROL  
KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

- Bergara-Trintxerpe (Preferente maila) Igandea, 17.00, Ipintza.
- Bergara-Soraluze (Lehen mailako jubenilak) Larunbata, 16.30, Ipintza.
- Bergara-Urola (2. mailako kadeteak) Larunbata, 10.00, Ipintza.

**SASKIBALOAIA**

- Bergara-Arrasate (Jubenil mutilak) Larunbata, 16.00.
- Aranzadi Ikastola-San Viator (Infantil mutilak) Larunbata, 11.15. Biak Labegaraietan.

**ESKUBALOAIA**

- Bergara-Ordizia (Jubenil mutilak) Igandea, 12.15. Labegaraietan.

**PELOTA**

- Profesionalak -
- Goñi / Lejardi (2. mailako Txapelketa)
- Arteaga eta Zezeaga / Eugi eta Aldazabal
- Loiarde eta Galardi / Badiola II. eta Andueza VI. Larunbata, 16.30. Udal Pelotalekua.

**PALA TXAPELKETA**

- Carlos Lizarralde eta Anton Zangitu / Peli Narbaiza eta Piti Madariaga
- Andoitz Garitano eta Igor Lete / Jose Luis Sanz eta Eduardo Barroeta
- Jabi Etxeberria eta Jon Alberdi / Joseba Otaño eta Jesus Martinez
- Alexander Arroyo eta Jaio Manzanedo / Oskar Azkarate eta Gorka Azkarate Igandea, 11.00etatik aurrera. Osintxuko Frontoia.

**Aitor Zabaletak etxe babesle berria izango du hastear dagoen denboraldian**

*Ivan Rodriguezek igandean jokatu du Albaceten Clio 16 kopako lehen proba; Pablo Irizar AX koparen bila*

Aitor Zabaleta autogidari bergararrak *Pepsi* etxearen babesla lortu du aurtengo denboraldirako. Zabaletak hilabete barru Castellonen hasiko den Mendiko Kotxe Igoeren Espainiako Txapelketa lortzeko ahaleginak egingo ditu aurtun ere, azken lau urteetan azpitxapel-dun geratu ondoren. Europako Txapelketako proba batzuk ere jokatzeko asmoak ditu eta Euskadiko Txapelketa berriz ere eskuratzen saiatuko da. Bergararrak iaz Vila-riñok erabili zuen BMW 400 CV motorra erabiliko du bere kotxean.

Bestalde, Ivan Rodriguezek igande honetan ekingo dio Albaceten Clio 16 valvula kopari. Iaz hirugarren geratu ondoren



Zabaletak *Pepsi* etxearen babesla lortu du aurtun.

aurten txapela eskuratze-ko faborito nagusia dugu.

Pablo Irizar, azkenik, AX kopan arituko da aurtun eta Jaraman jokatu du apirilaren 17an denboraldiko lehen proba. Autogidariak martxan!



**Agorrosin futbol zelaia konpontzen** aritu dira azken egunotan Anoeta futbol zelaia zaintzeaz arduratzen diren Realaren teknikoak. Realak Aste Santuan antolatzen duen gazte mailako naziarteko futbol txapelketa dela eta, apirilaren 5ean Agorrosinen jokatu den Real Madrid-Liverpool partidurako zelaia konpontzeko 100 tona harea bota dituzte. Bien bitartean Bergarak Ipintzan jokatu ditu etxean jokatu beharreko hurrengo bi partiduak.

**Blanco Gorlan garaile**

Santi Blancok irabazi zuen joan zen igandean jokatu-tako Gorlako XX. Txirindulari igoera. Banestoko txirindulariak Irustak zuen marka 36 segundutan hobetu zuen eta beraz, Gorlako Igoerako errekor berria lortu zuen (20 minutu eta 33 segundu).

Beteranoen mailan, bestalde, Jose Enrique Fernández izan genuen garaile (25 minutu eta 50 segundu).

**Pala Txapelketa martxan**

Pasa den igandean eman zitzaion hasiera Udala Kirol Zerbitzuak Osintxuko frontoian antolatzen duen Pala Txapelketari. Zortzi bikotek hartuko dute parte eta bi taldetan banatuta igandero igandero neurtuko dituzte indarrak. Aste honetako partiduak, ezkerrean.



## "Ondo Biurtu" Zubiaurreko elkarte

**O**ndo Biurtu elkarteko kideak ditugu argazki honetan. "Ondo-Biurtu" Zubiaurre eta Labegaraietako gazteek osatutako mendi-elkarte izan zen, gerra aurretikoan bi urte t'erdi inguru iraun zuen. Mondragones tabernan izan zuten beren lokala. Jeneralean hurbilera egin ohi zituzten irteerak baina zenbaitetan Urbanoren autobusa hartu eta urrutitxoago ere joan ohi ziren. Goiko argazkian Aralarren ageri dira. Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran, jarrita:** I. Urbano Calvo, Fermin Agirre, Simon Fernandez, Urbano Lopez eta Martin Zabaleta.

**Bigarren ilaran:** Inazio San Jose, Fernando Agirre, Luis Bikuña, Juan Bikuña eta Andres Agirre.

**Hirugarren ilaran:** Serapio Agirre, Bixente Irizar, Eustakio Urzelai, Agarre, Rikardo Villar, Martin Guridi, Bixente Garitano, Juan Fernandez, Luzio Garitano eta Jesus Durana.

Bazterreko hirurak Aralarko artzairen batzuk dira. Ez dira, beraz, ezagunak.

*Estepan Plazaola*

# MEMESA

**P**  
phanton

IRIMO

ARRASATE ☎ 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Garajea salgai** San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Berriztutako **pisua salgai**. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

**Apartamentu** zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

**Garajea salgai** Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsalde).

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

**Pisua** alokatzen da Mekoalden. ☎ 762209.

**Pisua alokatzen da** Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Etxea salgai** Zabalotegi 3an. Terraza eta guzti. ☎ 76 42 24.

**DENETARIK**

**Alfa 33** kotxea salgai. Kilometro gutxi. Egoera onean. ☎ 76 02 01.

**Remolke-denda** "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peavey** anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

**Petrikilo**, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

**Paseozko Torrot bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 764868.

**Onix** motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**BX-16 TRS kotxea** salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

**Montesa Cota 335** (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

**Subijanaren** sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

**Kanpin denda** haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauzez).

**Renault 21 TXE** bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

**Artzai txakur** bat galdu da. ☎ 76 27 90.

**Mendi bizikleta** salgai. Cannondale XT. 150.000 pta. ☎ 781858 (Jose Mari).

**Mendiko bizikletako zapatilak** salgai. Oparia: kaskoa. ☎ 76 37 29 (Martin).

**Butanozko Mepamsa estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

**Game-boy** bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

**LANA**

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**Haurrak/zaharrak zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

**Ingeles Filolojian** lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak zainduko** lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **klaseak**. ☎ 762457 (Josune).

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Hildakoak**

**Basilio Flores Gómez "Farruco"**  
martxoak 9, 98 urte  
**Mauricia Lazkano Leturia**  
martxoak 11, 93 urte

**Jaiotakoak**

**Unai Araolaza Ojea**  
martxoak 8  
**Ariane Rodríguez Baladrón**  
martxoak 10

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-Denda  
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**BEHEKO TABERNA**  
**Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.**  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**ZUBIETA**  
**elektragarintza**


✓ Motorren bobinaketa  
✓ Era guztietako instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea  
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

## FAGOR



Sukalderako altzariak

### ADI ORAIN!!

**MARTXOAN ETA APIRILEAN % 40ko DESKONTUAK MODELO HAUETAN:  
VERONA, CAPRI, LINEA, FIORE, NALIA eta OXFORD.  
APROBETXA EZAZU HALTZARIK, FAGOREn GARANTIAREKIN, ESKAINTZEN  
DIZUN AUKERA PAREGABE HAU.**